



OIARTZUNGO
UDALA

396 ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, 2010eko maiatzaren 3an.

Ikusirik 2010eko apirilaren 12ko 288 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez, hiri-hondakinen atez ateko bilketaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoen rentingaren hornidura kontratzeko kontratazio-espeditentea onartu zela, presakotzat joaz (SPKLren 96. artikuluan aurreikusitako ondorioekin), 25.000 €-ko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin (36 hilabeterako), eta esleipena egiteko jardunbideari hasiera eman zitzaiola.

Ikusirik ondorioz Pamas Servicios de Ingenieria, S.A., Antonio Gaspar, S.L. eta Moba-Ise Mobile Automation, S.L. enpresei gonbidapenak bidali zitzaizkiela.

Ikusirik Moba-Ise Mobile Automation, S.L. enpresak aurkeztu duela soilik proposamena: 24.684,18 €-ko aurrekontuarekin (BEZ kanpo) eta 36 hilabeterako.

Kontuan harturik Hondakinen Kudeaketarako aholkulariak eta Administrazio Orokorreko teknikariak gaiaren inguruan idatzitako txostenak.

Ikusita Obrak eta Zerbitzuak batzordeak 2010eko apirilaren 29an egindako diktamena, eta berarekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau **ERABAKI DUT**:

*Moba-Ise Mobile Automation, S.L. enpresari esleitzea hiri-hondakinen atez ateko bilketaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoen rentingaren hornidura **behin-behingo** izaeraz: 28.633,64 €-ko zenbatekoagatik (BEZ barne) eta 36 hilabeterako.*

*Esleipendunak 1.234,21 €-ko behin betiko hermea jarri beharko du. Horretarako 10 egun balioudunetako epea izango du esleipen hau kontratatzailearen perfilean publikatzen denetik. Bermea jarri eta epe hori igaro ondoren, 5 egun balioudunetako epean **behin betiko** esleipena egingo da.*

2010. urteko kuoten ordainketa (8 hilabete) udal-aurrekontuko 1 0501.202.442.002 (A/970-2010) diru-atalaren kargu egingo da.

Aitor Etxeberria Txurio alkate-lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, eta neuk, idazkari naizenez, ziurtatzen.

